



MENDAROKO  
UDALA

## **SANTANA JAIK KAMISETA LEHIAKETA - OINARRIAK**

### **1. Oinarria. Parte-hartzaileak**

Gutxienez 16 urte dituen edozein pertsona fisikok hartu ahal izango du parte.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, deialdian parte hartzeko ezarritako baldintza espezifikoak betetzen ez dituzten pertsonak, ez eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako debekuren bat dutenak.

### **2. Oinarria. Parte hartzea**

Mendaroko Santana Jaiak kamiseta lehiaketan parte hartu nahi dutenek Santanekin lotutako logo bat diseinatu beharko dute, diseinu grafikoa libre izanik.

Diseinuak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Testurenbat izatekotan euskaraz izango da.
- Ez da urterik aipatuko.
- Kolore bakarra izango du.
- Inpresio eremua gehienez 250 mmx 150 mm-koa izango da.
- Parte-hartzaileak bere diseinuak PDF formatuan aurkeztuko ditu.

Ondorengo kasuetan diseinuak baztertuak izango dira:

- Aurkeztutako diseinuak ez duenean bat egiten proposatutako gaiarekin
- Udalak, susmoak dituenean on-line bozketaren prozesuan modu artifizial edo iruzurrezkoak erabili direla berezko bozketak areagotzeko eta kopuruak handitzeko.
- Aurkeztutako diseinuak bere edukiagatik gustu txarrekoak zein iraingarriak gerta daitezkeenean.
- Parte-hartzaileak edozein modutan deialdiko oinarrietan zehazten dena betetzen ez duenean, hori dela eta, Udalak eskubidea du parte-hartzeileari baldintzak betetzen dituenaren ziurtagiriak eskatzeko.

Parte hartzaileek euren diseinuak ondorengo helbide elektronikora bidaliko dituzte:  
[erregistroa@mendaro.eus](mailto:erregistroa@mendaro.eus)

Diseinua helaraztearekin batera ondorengo datuak zehaztu beharko dira:



MENDAROKO

UDALA

- Parte hartzailearen izen abizenak eta telefono zenbakia.
- Diseinuaren izenburua eta esanahia adierazten duen testu laburra.

Oinarri honetan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten parte hartze eskaerak ez dira onartuak izango.

### **3. Oinarria. Aurkezteko epea**

Sarietan parte hartzeko eskabideak gehienez ere ekainaren 8rako aurkeztuko dira.

### **4. Oinarria. Oinarrien publizitatea**

Oinarriak udaletxeko iragarki-oholean eta [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus) webgunean kontsultatu ahal izango dira.

### **5. Oinarria. Epaimahaia**

Herritarrek osatuko dute, ekainaren 10tik 19ra arte egingo den online bozketa bidez.

### **6. oinarria. Sariak**

Mendaroko Udalak diseinu irabazlearekin kamisetak ipiniko ditu salgai, herri bazkarirako tiketarekin batera.

Irabazlearentzako saria 200€-koa izango da.

### **7. oinarria. Epaimahaiaren erabakia eta sari-banaketa**

Epaimahaiaren erabakia, dagokion akta izango duena, behar bezala argitaratuko da ediktuen taulan eta Udalaren web orrian: [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus).

Sariak emateko ebazpena Alkatetzaren Dekretu bidez egingo da, sarituari jakinaraziko zaiona.

Obra irabazleak argitaragabeak eta saririk gabekoak direla egiaztatzeko, epaia argitaratu eta 30 eguneko epean ordainduko da sari horien diru-zuzkidura.

Saria ordaintzeak esan nahi du egileak aitortu eta onartu egiten dituela eskusiboki saritutako lana erreproduzitzeko, banatzeko, argitaratzeko eta saltzeko eskubideak deialdia egin duen erakundeari, jabetza intelektualeko eskubideei buruzko indarreko legerian ezarritako gehieneko epean, eta ez du ekarriko jasotako sariaz bestelako eskubide ekonomiko gehigarririk.



MENDAROKO

UDALA

### **8. Oinarria. Onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14.1.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, saritutako parte-hartzaileek egiaztatu beharko dute egunean dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, eta ez direla Udalari zor edozein kontzepturengatik.

Halaber, DLoren 13. artikuluan aurreikusitako debekurik ez dutela adierazten duen adierazpena aurkeztu beharko dute.

### **9. Oinarria. Organo eskuduna**

Deialdia onartzeko eta ebazteko organo eskuduna Alkatetza.

### **10. Oinarria. Oinarriak onartzea**

Deialdi honetan parte hartze hutsak deialdi hori arautzen duten oinarriak erabat onartzea dakar.

### **11. Oinarria. Datu pertsonalen babesa**

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak babesteari eta ekuibide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak HERRITARTASUN saileko espediente administratiboak euskarri informatikoan edukitzea eta Udalak Santana Jaiak kamiseta lehiaketaren kudeaketatik eratorritako informazio pertsonala kudeatzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamendu-arduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) araudiaren 6.1 artikuluen a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna Mendaroko Udaleko HERRITARTASUN Saila.

### **12. Oinarria. Azken arauak**

Mendaroko Udaleko Kultura Sailak ezustekoak ebazteko eskumena izango du. Oinarri hauetan aurreikusten ez den edozein gorabehera erakundeak ebatziko du, lehiaketa garatzeko modurik egokienean.